

# **GRADU AMAIERAKO LANA**

Ikaslea: Itziar Borda Errasti

Euskal Ikasketetako Gradua

2015/2016 ikasturtea

## **LINSCHMANN-ARESTI LEGEA GOIERRIKO TESTUETAN BARRENA**

Tutorea: Mikel Martinez Areta

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

## Laburpena

Gradu amaierako lan honetan, Linschmann-Aresti legea Goierriko eskualdean aztertu da; horretarako, XVIII. eta XIX. mendeko testuetan oinarritu gara. XVIII. mendea baino lehenago gipuzkeraz zenbait lekukotasun dauden arren, lehendabiziko lekukotasun zabala 1713. urtean Otxoa Arinen doktrinarekin aurkitzen dugu. Guztira lanean zehar 5 autore eta 6 obra aztertu dira: Otxoa Arin (1713), Zegamako doktrina (1741), Amundarainen sermoi-sorta (1824), Iztuetaren *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1825) eta *Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia* (1847), eta, bukatzeko, Lardizabalen *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia* (1855).

Idazle-sorta honen artean bi multzo bereizi beharrean gaude. Batetik, Larramendi aurreko garaikoak, hau da, Otxoa Arin (1713) eta Zegamako doktrina (1741), eta bestetik, Larramendiren ostekoak, Amundarain (1824), Iztueta (1824) / (1847) eta Lardizabal (1855). Izan ere, Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzaren* (1745) eragina hautematen da XIX. mendeko obra batzuetan, eta bere morfologiaren kutsua ere nabarmena da autore askorengan.

Era berean, pertsona izenordainak direla eta, euren arteko bilakaera azaltzea helburuetako bat izan da. Izan ere, XVIII. eta XIX. mendeetan zenbait bilakaera hauteman dira. XVIII. mendeko bi lanen inguruko taula zehatzak egin dira. Bertan LA legearen betetze eta hauste-kasuen kopuruen eta portzentajeak eman dira. XIX. mendean, aldiz, pertsona izenordainen forma asko orokortu egin dira, eta jadanik ez dugu neutro eta indartu bereizketaz hitz egiten. Horregatik, mende honetan taula zehatzik ez da egin. Hau guztia bukaerako ondorioetako taulan biltzen saiatu naiz. Era berean, LA legeari dagokionez, XVIII. mendean gertatzen ez ziren urraketa batzuk XIX. menderako gertatzen hasten dira, hala nola, 3. pertsona singularrean. Beraz, honelako fenomenoak ere azaldu eta aztertu dira.

# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	<b>4</b>
<b>2. LA legea euskaraz eta Gipuzkera Zaharreko literaturan</b>	<b>5</b>
2.1. LA legea euskaraz	5
2.2. LA legearen gorabehera batzuk	6
2.3. LA legea Gipuzkera Zaharreko literaturan	7
<b>3. Ikerketa</b>	<b>8</b>
3.1. Linschmann-Aresti legea aztertzeke irizpideak	8
3.2. LA legea Goierriko XVIII. mendeko bi testutan: Otxoa Arinen doktrina (1713) eta Zegamako doktrina (1741)	8
3.2.1. Otxoa Arinen doktrina (1713)	8
3.2.2. Zegamako doktrina (1741)	12
3.3. LA legea Larramendi osteko zenbait autoretan	16
3.3.1. Joxe Felix Amundarain-en <i>Sermoi-sorta</i> (1824)	16
3.3.2. Juan Ignacio Iztueta	18
3.3.2.1. <i>Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia</i> (1824)	18
3.3.2.2. <i>Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia</i> (1847)	20
3.3.3. Francisco Ignacio de Lardizabal-en <i>Testamendu Zarreco eta Berrico Condaira</i> (1855)	22
<b>4. Ondorioak</b>	<b>25</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>29</b>

## 1. Sarrera

Gradu amaierako lan honetan, Linschmann-Aresti<sup>1</sup> legea Goierri aztertzea dut helburu, nola eta zein neurritan betetzen den eta betetzen ez diren kasuak iruzkinduko ditut. Horretarako, lehenik, LA legea zertan datzan azalduko dut. Honekin batera, lanean zehar zenbait taula agertuko dira; lehenik, testuetan bildutako datu zehatzak islatzen dituen taula eta ondoren, LA betetzen eta hausten diren kasu kopuruen taula. Bukaeran, urraketa kopuruen inguruko portzentajea emango da. Beti ere, zehaztu diren irizpide batzuei jarraitu diedalarik. Aztergai den corpusari dagokionez, hasieran esan bezala, gipuzkera zaharreko testuetan oinarrituko naiz, zehazkiago Gipuzkoako Goierri eskualdeko testuetan.

Kontuan hartzekoa da gipuzkera zaharra 1713. urtean lekukotzen dela, testu luze batean, Otxoa Arin ordiziarraren *Doktrina Kristianaren Explikazioarekin*. Testu honetaz gain, *Zegamako doktrina* (1741) autore ezezaguneko lana ere oinarritzat hartu dut. OA (1713)-ren lanarekin batera, XVIII. mendeko gipuzkerazko bi lekukotasun oparoenetarikoak ditugulakoan nago. Testu hauen inguruko datuen taula egin aurretik, testuotako genitibozko pertsona-izenordainen deskripzio laburra eman da.

Aipaturiko bi testuez gain, XIX. mendeko gipuzkerazko beste hainbat testu ere aztertuko ditut: eskualde bereko 1824. urtean Jose Felix Amundarainek idatzi zuen sermoi-sorta, Juan Ignacio Iztuetaren *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1824) eta *Gipuzkoako probintziaren condaira edo historia* (1847) eta azkenik, Francisco Ignacio Lardizabalen *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira* (1855) ere arakatu dut.

Hala ere, azken testuotan ez dut taularik egin, bertako genitibozko pertsona-izenordainen bitxikeriei, LA legearen hausturei, etab. erreparatu diet. Honekin batera, esan beharra dago testuok Larramendi osteko garaikoak direla.

Lanean zehar erabilitako corpora dela eta, OA (1713), Iztueta (1824) eta (1847), eta Lardizabal (1855) lanei dagokienez, sareko bertsio elektronikoak baliatu ditut<sup>2</sup>. Zegamako doktrinaren (1741) kasuan, aldiz, Frantzisko Ondarrak 1984. urtean ASJU-ko artikulu batean argitaraturiko corpora baliatu dut. Azkenik, Amundarainen (1824)-ko sermoi-sorta, Antton Idiakenez *et alii*-en (1998) lanetik hartu dut.

---

<sup>1</sup> Hona hemen lanean zehar erabili diren laburdurak: LA = Linschmann-Aresti (legea); OA = Otxoa Arin; OEH = *Orotariko Euskal Hiztegia* (= Euskaltzaindia 1987-2005); TAV = *Textos Arcaicos Vascos* (= Mitxelena 1964/1990).

<sup>2</sup> Hona hemen baliatu dudana orrialdea: <http://klasikoak.armiarma.eus/>

Bukaeran, azterturiko idazleen ostean, LA legeari buruz aterako ondorioak islatuko dira. Baita, lanean zehar erabilitako bibliografia ere.

## 2. LA legea euskaraz eta Gipuzkera Zaharreko literaturan

### 2.1. LA legea euskaraz

Lehenik eta behin, lan honi hasiera emateko bertako gai nagusia, hau da, Linschmann-Aresti legea<sup>3</sup> azalduko dut. LA legea betetzen den testu batean, forma indartuak agertuko dira, perpausoko aditz jokatuaren argumentu bat bada, hau da, aditz jokatuan pertsona izenordain horri dagokion marka baldin bada. Honelakorik gertatzen ez bada, forma neutroak agertuko dira. Lege hau euskal testu zaharretan era batean edo bestean betetzen den arau bat dugu.

Honekin batera, marka alokutiboek ez dute forma indarturik eragiten, hau da, *hire* eta *heure*-ren artean, 'hi'-ri dagokion marka alokutiboa baldin bada, *hire* esango dugu, eta ez *heure*.

Hona hemen, Sarasolak (1980: 434) aipatzen dituen Leizarragaren adibide hauek:

- (1) *O emaztea, handi dun hire fedea* Lç Mt, 15, 28

Perpaus honetan *dun*, *da*-ren aldaera alokutiboa bat da. Beraz, *da*-ren argumentua 3s izanik eta posesiboa 2 s, perpaus honetako perpaus izenordainak neutroa izan behar du.

- (2) *Eure Iainko Iauna adoraturen duk* Lç Mt, 4, 10

Kasu honetan, aldiz, *hi* ekintzaren argumentu bat da. Era honetan, aditza 2s argumentuarekin agertzen denez eta posesiboa 2s denez gero, honek indartua izan behar du.

Pertsona-izenordaina, aldiz, 3. pertsona denean, 3. pertsona singularrean forma neutroa / indartua honakoak dira: *haren* / *bere*, baina hauek ere forma ezberdinak izan ditzazkete: *aen*, *aren*...

Honetaz gain, testuinguru batean 3. pertsona bat baino gehiago egon daitezke. Honelakoetan, aditzeko 3. pertsonako marka izenordainaren aurrekariari egin behar dio erreferentzia. Adibidez:

- (3) *Jon-ek haren/bere izena ikusi du-Ø orrian*

Kasu honetan, *haren* eta *bere* biak erabil ditzakegu baina adiera ezberdinarekin. Aditz jokatuak -Ø marka subjektuari dagokio, *Jon*-i beraz. Honela, *haren/bere*-ren

---

<sup>3</sup> Atal honetan nagusiki Sarasola (1980)-ko lanean eta Martinez Areta (2014-15)-en oinarritu naiz.

atzean dagoen ‘hura’ Jon bera bada, orduan erreferentziakidetua izango da aditzean, eta beraz *bere* forma indartua agertuko da.

Bestalde, *haren/bere*-ren atzean dagoen ‘hura’ beste norbait baldin bada, orduan ez da erreferentziakidetua izango aditzean, eta beraz, *haren* forma neutroa agertuko da. Beraz, adibide hauetan ikus daitekeen bezala, *haren* ala *bere* hartzearen arabera, esanahia ezberdina izango da:

- (4) a. *Jon-ek<sub>i</sub> bere<sub>i</sub> izena ikusi du-Ø<sub>i</sub> orrian*  
‘Jon-ek bere izen propioa ikusi du orrian’  
b. *Jon-ek<sub>i</sub> haren<sub>j</sub> izena ikusi du-Ø<sub>i</sub> orrian*  
‘Jon-ek beste norbaiten izena ikusi du orrian’

Menpeko perpausetan ere berdin gertatzen da, hau da, izenordaina ageri den sintagma beti perpaus berean dagokion aditz jokatuarekin erkatu behar da, bai perpaus hori nagusia bai menpekoa izan. Beraz, menpeko perpausen barnean ere LA gauzatzen da. Hona hemen bi adibide:

- (5) a. *Berak esan du [ikusi duela **bere** alaba]*  
b. *Zuek esan duzue [ikusi duzuela **nire** alaba]*

## 2.2. LA legearen gorabehera batzuk

Euskal izen morfologian, badira genitiboaren gainean eraturako kasu batzuk. Adibidez: soziatiboa (gen.a + *-kin*: *ene-kin/ neure-kin...*) lekuzko kasuak (gen.a + *-gan*, *neure-gan*), etab. Hauek ere genitibozko forma sakonak ditugu eta horregatik, LA banaketan sartzen dira:

- (6) a. *Munduan evilizan acompanyaturic, **berequin** Limbotic atara cituan anima justoaequin, consolatcen.* (Zegamako dotrina, 34: 8)  
b. *Bere virtute propioarequin, lagun eguiten ciobela **berequin** cerabilcen bienaventuradu gutciec.* (Zegamako dotrina: 34at: 5)

Aditz jokaturik perpausetan aditz jokaturik agertu liteke baina jokaturik ez.

- (7) *Aizkenean emen adbirtitzen da, [persona ignoranteak **euren** ignorantziatik ateratze arren], ezen ez dala lomesmo edo ainbeste juicio temerarioa, nola sospetxa temerario.* (OA: 40. orr., 34)

Gerta liteke aditzik ez egotea, ez jokaturik ez jokaturik. Adibidez, Leizagarraren adibide honetan ikus dezakegun bezala (Sarasola 1980: 435):

- (8) *Nola diotsok eure anaieri, Uztak idoki dezadan fitsa hire begitik, eta horrá gapiroa **hire** begian?* (Leiz., Mt 7, 4)

Kasu honetan, sakoneko egituran *dagoen* izango genuke eta beraz, LA betetzen da. Izan ere, *hire* dugu eta ez *eure*.

Bestalde, bokatibozko sintagmetan, kontutan hartu behar da, euskal testu zaharretan zalantza asko daudela. Alde batetik, Leizarragaren kasuan, bokatibozko sintagmak esaldiaren sintaxitik kanpo utzi eta hauen forma neutroak hobesten dira baina beste aldetik, Axularrek bokatibozko sintagmak esaldian integratu ohi ditu (erka bitez (9b) eta (9c)). Hona hemen, bi idazleen adibide bana<sup>4</sup>:

- (9) a. ***Ene** Jaincoa, Ene Jaincoa, ceren abandonatu nauc?* (Leiz, Mt 27, 46)  
b. *Çaudete beraz iratçarriric, **ene** anaia maiteac* (Ax, Gero 250)  
c. *Placer espiritualera, arimaco alegriançara, conuidatu nahi çaituztet, egungo egunean, **neure** anaia maiteac* (Ax, Gero 287)

### 2.3. LA legea Gipuzkera Zaharreko literaturan

Gipuzkoako literatur tradizioari helduz, XVIII. mendea baino lehenago baditugu zenbait testu eta balada. Horren adibide dugu Mitxelenak (TAV: 1964: 151) erakusten duen 1557ko Tolosako ezkontza fedea. Hor, LA legea betetzen dela ikus dezakegu:

- (10) a. *... vada essaten diot [ezconçen naiçela eta ematen diodala **neure** fedea], [arçen dedala **neureçat** eta **neure** emazteçat].*  
b. *essaten diot, Jauna; orrec essaten didan guçiaric bayez guçiaric bayez, orrec essaten didan veçala, [eta ezconçen nayçala eta ematen diodala **neure** fedea] eta [arçen dedan **neure** senarçat ]orrec arçen nauen veçala.*

Beranduago, legea urratzen da zenbait eratan, Sarasola (1980: 438-439) dioenez bezala. *OEH*-aren arabera 3. pertsonan n. > i. ez da nagusitzen XX. mendera arte (baina ikus beherago Amundarain-i buruzkoa). 1. eta 2. pertsonetan, aldaera ezberdinak garatzen dira, eta LA legearen arazoa korapilatu egiten da, lanean zehar hautemango den moduan.

<sup>4</sup> Adibide hauek Martinez Areta (2015: 468)-tik ateratakoak dira.

### 3. Ikerketa

#### 3.1. Linschmann-Aresti legea aztertzeako irizpideak<sup>5</sup>

Atal honetako 1. taulako datuak zenbait irizpideren arabera zenbatu eta sailkatu dira. Hona hemen, irizpide horiek: batetik, ardatz bertikalean dotrinako genitibozko pertsona izenordainak pertsonaka sailkatu dira. Doktrinan zehar 2. pertsona singularreko hitanozko forma aurkitu ez denez, ez dut bertan sartu.

Bestetik, ardatz horizontalean, berriz, hiru zutabe agertzen dira: 1) aditz jokatuak perpausak, 2) aditz jokatu gabeko perpausak, eta 3) bokatiak eta aditz isileko edo aditzik gabeko perpausak. Hirugarren taldean, besteak beste, doktrina baten aurrean gaudenez oso ohikok diren galde-erantzun egiturak sartu ditut. Beraz, aditza impliziturik, hau da, perpausuan isilik maiz agertzen da. Horregatik, kasu guzti hauek 3. taldean sartu ditut. (adib. *Nola criatu ceban? Bere adisquidetasunean, eta gracion*; 11at. 1).

Bokatiakoen kasuan, bokatiak hustzat hartu ditut (adib. *Neure Jauna, eta Jaungoicoa Nic sinitcen det firmemente Trinidad Santissimaco misterioa, ...*; 61 at., 5). Honelakoak n.tzat hartu dira, edo bestalde perpausoko sintaxian integratzen dira, argumentu gisa (bai subjektua, bai osagarri zuzena, etab.) (adib. *Aita gurea, ceruetan zaudena?*; 42 at. 4) (*Amatcen zaitut, neure Jaungoicoa, Vioz gutcitic; cergatic ceraden ahin dignoa izan zaitean amatua*; 64,3).

Zutabe bakoitzaren barnean, genitibozko pertsona-izenordain bakoitzak lau balore posibleetako bat hartu du: 1) forma neutroa da eta legea betetzen du (= n.), 2) forma indartua da eta legea betetzen du (= i.), 3) forma neutroa espero genukeen testuinguru batean indartua azaltzen da (= n. > i.), eta 4) forma indartua espero genukeen testuinguru batean neutroa azaltzen da (= i. > n.).

Analisi honetan, genitibozko formez gaiz (*nire, neure, zure...*), genitibotik eratorritako kasuetan daudenak ere onartu dira (*arequin, beregan...*).

#### 3.2. LA legea Goierriko XVIII. mendeko bi testutan: Otxoa Arinen doktrina (1713) eta Zegamako doktrina (1741)

##### 3.2.1. Otxoa Arinen doktrina (1713)

Lehenik eta behin, OA-en doktrinari (1713) heltzeko asmoz, bere doktrinan ez dugu *ene* pertsona izenordain singularra aurkitzen. Izan ere, *OEH*-an agertzen den bezala bere agerpena XVIII. mendetik aurrera nabarmenki gutxitzen da bizkaierazko

---

<sup>5</sup> Irizpide hauek Martinez Areta (2015)-etik ateratakoak dira.



testuetan eta oraindik are gehiago gipuzkerazko testuetan, bere erabilera bokatiboatara mugatzen delarik. Bere lekuan, *ne* pertsona izenordain neutroa eta indartuan, aldiz, *neure* aurkitzen ditugu.

1. pertsona pluralean, OA-en bereizgarritasun handienetako bat ikus dezakegu: 3 kasutan *gure* neutroa dugu (n.); bestetik, *n*-rik gabeko *gere/geure* ere aldaera neutrotzat jo behar ditugu. Indartuetan, berriz, *geren/geuren* aldaerak agertzen dira. Ikus dezagun lau formon adibide bana ((11a, b) = n., eta (11c, d) = i.):

- (11) a. *Leenegoa da, sinistea Jesu Kristo **gere** Jauna Gizona dan partetik konzebitu zana Espiritu Santuaren obraz.* (OA, 8. orr., 43)
- b. *..., zeñean dijoan eternidade bateko **geure** salbazioa.* (OA, 27. orr., 14)
- c. *..., **geuk geren** zordunai barkatzen diegun bezela.* (OA, 7. orr., 5)
- d. *Krutze Santuarekin, eta beraren birtutean benziduko ditugu demonioa, mundua, eta **geuren** apetitu gaiztoak, ...* (OA, 11. orr., 7)

LA legeari dagokionez, OA-en eta Zegamako doktrinaren tauletako datuak lortzeko, LA legearen formulazioa klasikoari jarraitu diot (Sarasola 1980), hau da, perpaus batean dagokion genitiboazko pertsona-izenordain jakin bat, pertsona horri dagokion marka baldin badago, orduan genitiboazko pertsona izenordain horren forma indartua agertuko da. Kontrakoa gertatuz gero, pertsona-izenordain horren forma neutroa agertuko da. Perpaus jokatugabeetan, aldiz, perpausaren sakonean dauden argumentuei erreparatuko zaie.

Ondoko bi tauletan Otxoa Arinen doktrinan (1713) ateratako datuak bildu ditut.

	Aditz jokatuak perpausak				Aditz jokatugabeko perpausak				Bokatiboak eta aditz isileko perpausak			
	n.	i.	n.>i.	i.>n.	n.	i.	n.>i.	i.>n.	n.	i.	n.>i.	i.>n.
1sg.	0	19	5	2	0	6	0	0	0	0	2	0
2sg.	4	6	5	1	0	0	0	0	0	0	0	0
3sg.	28	173	0	0	1	0	0	0	1	0	0	0
1pl.	18	16	0	7	0	3	0	1	4	1	0	0
2pl.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
3pl.	0	15	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0

1. taula. LA legearen datuak Otxoa Arinen doktrinan (1713)

Jarraian, betetze / hauste kasuak eta proportzioak ikusiko ditugu.

	Ad. j.ko perp.		Ad. jg.ko perp.		Bok./ad.isileko perp.		Orotara		%
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	
1sg.	19	7	6	0	0	2	25	9	26,47
2sg.	11	6	0	0	0	0	11	6	35,29
3sg.	201	0	1	0	1	0	203	0	0
1pl.	34	7	3	1	5	0	42	8	16
2pl.	0	0	0	0	0	0	0	0	0
3pl.	15	0	2	0	0	0	17	15	0

2. taula. LA legearen betetze / hauste kasuak eta proportzioa Otxoa Arinen doktrinan (1713)

Orain LA legea hausten den kasuen analisiari ekingo diogu. OA-en *Doktrina Kristianaren Explikazioarekin* (1713)-ko lanean 3. pertsona singular eta pluralean LA legea osoki betetzen dela deigarria iruditzen zait. Horregatik, 3. pertsonan hausturen portzentajea %0-koa da.

Beraz, 2. taulako portzentajeei erreparatuz, LA legearen hausturen kopururik handiena 2. pertsona singularrean ikus daiteke, hau da, guztira %35,29an hausten delarik. Ondoren, 1. pertsona singular eta pluralak jarraitzen diote, %26,47 eta %16ko haustura-portzentajeekin.

2. pertsonari dagokionez, esaldietan maiz iruditu zait idazleak LA legea urratzen duela, n. > i. norabidean, enfasia emateko. Nire ustez, nolabaiteko kristau ikasbide liburu baten aurrean gaudenez, idazleak kristauak konbentzitu nahi ditu pertsona izenordain indartuaren erabileraren bitartez. Hona hemen, zenbait adibide:

- (12) a. *Santifikatua izan bidi zeure izena.* (7. orr., 3)
- b. *Betor zeure reinua gugana.* (7. orr., 3)
- c. *Egin bidi zeure borondatea* (7. orr., 4)
- d. *Abe Maria graziaz betea: Jauna da zeurekin.* (7. orr., 8)
- e. *... bedeikatua da zeure sabeleko frutua Jesus: ...* (7. orr., 9)

Honetaz gain, esan beharra dago (12a,b,c)-n aginterazko perpausak ditugun arren, perpaus hauetako aditzak *iusiboaren* barnean kokatzen direla.

OA (1713) lanean kontrako fenomenoak, hau da, i. > n. kasu bakarrean gauzatzen dela ere hauteman dut. Hona hemen, kasuok:

- (13) *Asko dan adina erantzun dezuz, kristauba; [bañan zure probetxurik andienerako, explikatuko dizut gero], ...* (22. orr., 22)

Bestalde, 1. pertsonari dagokionez, hausturen kopurua singularrean pluralean baino handiagoa dela ikus daiteke, %26,47rekin.

Hurrengo perpausa bokatibozkoa da eta LA legea urratzen da n. > i. gauzatuz. Bertan, Jaungoikoa dizipuluei deitzen ari denez, legea urratzen duela iruditzen zait.

- (14) ***Neure** Diszipuluak, modu onetan egingo dezue Oratzioa* (19. orr., 20)

Nire ustez, (15) adibidean idazlea bere buruaz dihardu eta horregatik *neure* i. birritan erabiltzen du. Izan ere, hasierako aditza *naizan* den arren, pertsona izenordain perpausoko aditza *lizate* da, Beraz, perpaus honetan n. > i. bi aldiz gauzatzen da. Baliteke *naizan* aditzak nolabaiteko erakarpen bat eragin izana eta honenbestez, *neure* indartua erabiltzea, *nere* neutroaren lekuan.

(15) *Kristauba naizan bezela, eta beste onelako itzegite moduak esatea. Bañan esango baliz beste modu onetara: Neure biziagatik, Neure animeagatik, &c. Izango lizate juramentu.* (34 orr., 3)

(16) adibideko bi perpausetan, aldiz, kontrako fenomenoak gertatzen da, hau da, i. > n. Izan ere, §3.2.1 atalean azaldu bezala OA-ek *nere* genitiboazko pertsona-izenordaina darabil n. adierazteko.

(16) a. *Nik proponitzen det firmeza, eta resoluzio guziarekin geiago pekaturik ez egitea nere bizi guztian,...* (32. orr., 5)

b. *..., bañan daude guziz engañatuak: zerren baldin nere proximoak ez badiakit niri zer juizio* (41. orr., 10)

1. pertsona pluralari helduz, orotara LA legearen urraketa %16an dago. Perpaus hauetan, i. > n. gauzatzen da. Adibidez:

(17) a. *Krutze Santuaren señaleagatik: geure etsaietatik: libra gaitzazu geure Jaungoikoa* (10. orr., 40)

b. *Baita geure gorputzeko osasunean gaitza egin nai digun edozeiñerako kriatura ere.* (11. orr., 7)

(17) adibideetako perpaus hauetan kontrakoa dirudien arren, lehen azaldu bezala OA-ek (1713) *geure* forma neutroa adierazteko erabiltzen du, hau da, *n* gabeko formez baliatzen da. Horregatik, baliteke perpaus hauetan gertatzen den urraketa idazlearen nahaste bat izatea, guztira 7 aldiz egiten baitu.

Honekin batera, hurrengo perpausa nahiko bitxia dugu:

(18) *...; eta geure proximoa geren buruak bezala serbitzean, eta amatzean.* (8. orr., 5)

Izan ere, perpaus jokatu batek da eta bertako aditzak juntaturaren bitartez loturik daude, hau da, *serbitzean* eta *amatzean*. Beraz, aditz hauen barnean *amatu behar dugu* eta *serbitu behar dugu* tankerako aditza inplizituki dagoela iruditzen zait. Honekin batera, perpaus berean bi genitiboazko pertsona izenordain ditugu *geure* eta *geren*. Honenbestez, 1. kasuan legea betetzen ez den arren, 2. kasuan betetzen da. Beraz, nire iritziz, idazleak *geren* forma i. norberaren buruari dagokionez baliatu du baina, berriz, *geure* n. forma besteei buruz ari delako erabili du. Hortik dator, nire ustez, legearen urraketa.

### 3.2.2. Zegamako doktrina (1741)

Zegamako doktrinarekin ekiteko asmoz, 1. pertsona singularrari dagokionez *neure* indartua soilik aurkitzen dugu, ez baitugu forma neutrorik doktrina guztian zehar topatzen. Hona hemen *neure* formaren bi adibide:

(19) a. *Nic ofrecitcen dizut **neure** vitcia obrac, ...* (10. 8)

b. *Damu det ain desgraciatua (sic) izana **neure** Jesu-Christogana.* (65at. 4)

1. pertsona plurala dela eta, neutro gisa *gure* agertzen da eta indartu gisa, berriz, *gueure* eta *gueuren* aldaerak ditugu.

(20) a. *Virgina santissimaren Entraña garbietan, **gure** naturaleza artuaz.* (26. 5)

b. *Norgandic dezu (sic) christaubaren itcenori?*

*Christo **gueure** Jauna gandic.* (12at. 8)

c. *eguin bidi zure vorondatea, nola Ceruan, ala Lurrean: egun iguzu **gueuren** egunerozco oguia.* (1at. 1)

(20b) perpausa aditz isileko perpausa da. Aditza galderan dagoenez, inpliziturik dago. Horregatik, perpaus honetan ez da LA legea betetzen, n. > i. gauzatzen baita.

2. pertsona singularrari dagokionez, doktrinan zehar, espero den bezala *zure* eta *zeure* biak agertzen dira baina ez dago doktrina guztian zehar pluralezko lekukotasunik. Hona hemen bi adibide:

(21) a. *Ayta gurea, Ceruetan zaudena, santifica bidi zure Itcena: vetor gugana **zure** R(einua:)* (1. 8)

b. *Esperatcen det, Escatcen badizut Viotcetic misericordia, concedituco dirazula, eta **ceure** gracia mediante, ez nabela venzituco Inf emu gutciac* (63at. 7)

(21)eko adibide hauetan, (a) perpausetan LA legea bi kasuetan betetzen den arren, (b) perpausetan, aldiz, ez da gauza bera gertatzen. Izan ere, *nabela venzituco* baita perpausako aditza. Beraz, legea n. > i. norabidean urratzen da.

Hauek dira Zegamako doktrinatik (1741) atera ditudan datuak:

	Aditz jokatuako perpausak				Aditz jokatu gabeko perpausak				Bokatiboak eta aditz isileko perpausak			
	n.	i.	n.>i.	i.>n.	n.	i.	n.>i.	i.>n.	n.	i.	n.>i.	i.>n.
1sg.	0	20	1	0	0	3	0	0	0	3	1	0
2sg.	6	5	2	2	2	1	3	0	1	0	0	0
3sg.	3	17	0	0	4	7	1	0	0	6	0	0
1pl.	4	10	8	0	3	4	1	0	4	5	7	0
2pl.	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
3pl.	0	4	0	0	0	2	0	0	0	0	0	0

3. taula. LA legearen datuak Zegamako doktrinan (1741)

Jarraian, betetze / hauste kasuak eta proportzioak ikusiko ditugu parez pare:

	Ad. j.ko perp.		Ad. jg.ko perp.		Bok./ad.isileko perp.		Orotara		%
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	
1sg.	20	1	3	0	3	1	26	2	7, 14
2sg.	11	4	3	3	1	0	15	7	31,81
3sg.	20	0	11	1	6	0	27	1	3,57
1pl.	14	8	7	1	9	7	30	16	34,7
2pl.	0	0	0	0	0	0	0	0	0
3pl.	4	0	2	0	0	0	6	0	0

4. taula. LA legearen betetze / hauste kasuak eta proportzioa Zegamako doktrinan (1741)

Orain LA legearen urraketan analisiari ekingo diogu. 4. taulako datuei erreparatuz gero, 1. pertsona pluralean legea gehien hausten dela ikus daiteke. Kasu honetan, legea guztira %34,7tan hausten da baina legearen hauste proportzioa 2. pertsona singularrekin oso parekatua agertzen da. Izan ere, 2. pertsona singularrean legea %31,81ean hausten baita.

1. pertsona pluralari helduz, hausturak ikusita iruditzen zait, aditzak 3. pertsonan dituzten perpausetan legea hausteko testuinguru egokia dagoela. Izan ere, perpaus hauetan n. > i. gauzatzen da eta guztira joera honen aldeko 7 perpaus topatu ditut. Gainera, 3. taulan adierazi bezala, doktrina guztian zehar n. > i. orotara 8 perpausetan eman dela hauteman dut. Hona hemen honen adierazle diren horietako hiru perpaus:

- (22) a. *Cergatic **gueure** etsaiac tempora, eta lecu gutcietan dauden guri guerra ematen* (15, 1)
- b. *Christo **gueure** Jauncac, Jaungoico dan partez, daucala gloria igualmente Aitearequin, eta Espiritu-Santuaquin.* (35, 1)
- c. *Dirade Christo **gueure** Jaunac institutu cituan (sic –tut-) señale batzuec, guri, ohec mediante beraren gracia, eta virtuteac emateco.* (50, 1)

Honekin batera, (22a) perpausaren egiturak bi interpretazio posible ditu. Bata, -t(z)en / -(k)etan egon eraikuntza gramatikalizaturik dagoela (eta hortaz [... ematen dauden] interpretatu behar dela. Beraz, aditz jokatu perpaustzat hartzen dugu eta honenbestez, n. > i. Bestea, perifrasi bat dela, (eta hortaz [...ematen] [dauden] gisa interpretatuko dugu. Beraz, aditz jokatu gabe i. Hala ere, nik lehen hipotesiaren alde egin dut eta aditz jokatu perpaus gisa hartu dut.

Bestalde, (22c) perpausa nahiko bitxia da. Izan ere, perpausa *dirade* aditzaz hasten baita baina aditz hori ez da *geure* pertsona-izenordainaren aditza. Genitibozko *geure* pertsona-izenordainaren aditza *cituan* baita. Honekin batera, askotan agertzen den *geure* genitibozko pertsona izenordaina, kristau orori erreferentzia eginez. Baliteke, arrazoia esapidea izatean egotea.

Aditz jokatuetak perpausen gainontzeko urraketak aginterazko perpausetan gertatzen direla ikus dezakegu. Doktrina baten aurrean gaudenez, aginterazko perpausak oso ohikoak dira. Doktrina guztian zehar, guztira legea aginterazko 10 perpausetan betetzen den arren, ondoko perpausetan ez dela betetzen ikus dezakegu.

(23) a. *Virgina Jaun(goicoaren) Ama, [regutu etzazu (gu) peccatarioc gatic orain, eta **g(u)euren** eriotzaco horduam] (sicm).* (2, 2)

b. *Salve Regina Jaungoicoac [gorde zaytzalea (sic -lea) Erreguinea, misericordiaren Ama, vicia, eta dulzurea, eta esperanza **gueurea**].* (3, 7)

Perpaus jokatugabeei dagokienez, legea behin soilik hausten den adibidea topatu dut. Kasu honetan ere, n. > i. fenomenoak gertatzen da. Hona hemen adibidea:

(24) *Jesu-Christo **gueure** Jaunaren corputz Sacratissimoari unituric.* (21at., 1)

Adibide honetan, *unituric* aditz jokatugabearen azpian, *unituta dagoela* edo antzeko zerbait inplizituki dagoela iruditzen zait. Beraz, LA legea ez da betetzen. Nire ustez, idazleak *geure* pertsona izenordaina kristauei orokorki zuzentzen zaielako darabil.

Aditz isileko perpausak direla eta, n. > i. fenomenoak 7 perpausetan gertatzen da. Hona hemen urraketa hori jasaten duten perpausen bi adibide:

(25) a. *Cer dago hostia consagratuan?*  
*Sacerdote Jaunac etsaten dituan itz consecratioco (sic -se-) ahen virtutez,*  
*Jesu-Christo **gueure** Jaunaren corputza.* (56.7)

b. *Comulgatcen ceranean, cer recebitcen dezu?*  
*Christo **guere** Jauna real, eta verdaderamente ceruan dagoan betcela gloria*  
*aundiz beteric.* (59.6)

Perpaus hauek jokatuak diruditen arren, aditz isileko perpausak dira. Izan ere, aditza inpliziturik galderan baitute, hau da, *dago* eta *dezu* dira galderan dauden aditzak. Horregatik, legea n. > i. norabidean urratzen da.

Honetaz gain, hausturen *ratioa* batez bestekoa baino altuagoa aditz jokatugabeko perpausetan galdera baten erantzun diren perpausetan nabaritu dut. Izan ere, n. > i. gauzatzen den aditz jokatugabeko 5 perpausetatik 3 perpaus galdera baten erantzun diren perpausak dira. Hauek aditza inpliziturik galderan duten arren, irizpideetan azaldu bezala aditz isileko perpausen barruan kokatu ditut.

(26) a. *Norgandic dezu (sic) christaubaren itcenori?*  
*Christo **geure** Jauna gandic.* (12at., 8)

b. *Nor dago Santissimo Sacramentu altaracoan?*

*Jesu-Christo **gueure** Jauna Jaungoico, eta Guizona dan partez, real eta verdaderamente ceruetan dagoan betcela.* (55 at, 9)

c. *Cer dago calizan?*

*Sacerdote Jaunac etsatendituan itz consagracioco ahen, virtutez, Jesu-Christo **gueure**, Jaunaren odola.* (57at. 6)

Lehen esan bezala, Zegamako doktrina (1741)-ean LA legearen hausturen kopururik handiena 1. pertsona pluralean eta 2. pertsona singularren nabaritu dut, bien arteko hausturen kopuruaren aldea oso txikia izanik. Orain hel diezaiegun 2. pertsona singularreko hausturei. Doktrinaren zehar topatu ditudan haustura-adibideak aztertu ostean, aditz jokatuetakoko perpausen artean aditza 1. pertsona singularrean dagoenean, n. > i. gauzatzeko joera dago. Izan ere, 3. taulan adierazi bezala legea urratzen den 5 perpausetatik 3-k egitura hau betetzen dute. Hona hemen, honen erakusle diren adibideak:

(27) a. *Esperatcen det, Escatcen badizut Viotcetic misericordia, concedituco dirazula, eta **ceure** gracia mediante, ez nabela venzituco Infernu gutciac.*<sup>6</sup>

(63. at. 7)

b. *Amatcen det **ceure** Esposa, eta neure Abogada Maria Ama Andrea.*

(64. at. 8)

Hurrengo perpausean, aldiz, i. > n. kontrako fenomenoaren ematen dela hauteman dut. Izan ere, aginterazko perpausa dugu, eta gorago esan dudanaren arabera indartua esperoko genuke. Hala ere, kasu bakarra topatu dut.

(28) a. *Eta destierro aub etquero (sic et-) eracutsi eguiguzu Jesus, **zure** sabeleco fructu bedeincatua.* (3at. 1)

Aditz jokatu gabeko perpausak direla eta, legea hausten den hiru perpaus topatu ditut. Kasu hauetan ere, (26)-ko adibideetan azaldu bezala, 1. pertsona singularreko aditzetan legea hausteko joera dago. Beraz, hiru kasu hauetan ere, n. > i. gauzatzen da.

(29) a. *Damu det Viotz gucitic **ceure** Divina Magestadea ofendidua.* (10. 4)

b. *..., eta aparcatcea **ceure** ofensaco ocasio gutcietatic* (10. 6)

c. *Damu det Jauna, ofenditua **ceure** bondade infinitoa* (65. 6)

Zegamako doktrinarekin (1741) bukatzeko, 1. pertsona eta 3. pertsona singularrean LA legearen haustura oso txikia da, hau da, %7,14 eta %3,57-ko haustura-

---

<sup>6</sup> (27a) perpausean aditza *nabela venzituco* da, eta ez *concedituco dirazula*.

portzentajeak gertatzen dira. Hala ere, urraketa hauen iruzkinak egitea komenigarri iruditzen zait.

(30) a. ..., *nolacoarequin amatcen zaituan **neure** Jesu-Christoren Humanidadeac.*  
(59. 3)

b. [***Neure** Jauna, eta Jaungoicoa Nic sinitcen det firmemente Trinitate  
Santissimaco misterioa], ...* (61 at., 5)

(30b) adibidea nahiko bitxia da. Bokatibo gehienak perpausko syntaxian argumentu bezala (askotan, subjektu gisa) integratzen diren arren, zenbait bokatibo hutsak dira eta hauek n.-tzat hartu dira. Adibide hau, doktrinan topatu dudana adibide bakarra da. Beraz, adibide honetan ere ez da LA legea betetzen. Izan ere, n. > i. gauzatzen da.

Azkenik, 3. pertsonari dagokionez, pluralean legea bere osotasunean betetzen den arren, singularrean bada adibide bat, non, aditz jokatugabeko perpaus batean legea urratzen den. Hona hemen, adibide hori:

(31) *Beragan eta **bere** misterio gutcietan sinitceco, ecusi baguinduz bequin (sic)  
ondo;* (63at. 7)

(31) adibide honetan, baliteke idazlea *ecusi baguinduz* aditzagatik erakarria izana eta horregatik, perpaus honetan forma indartuaren alde egitea. Dena den, teknikoki legea hausten da. Izan ere, *sinisteko*-ren argumentuak bi dira: Guk-Hura (Ø) baita.

### 3.3. LA legea Larramendi osteko zenbait autoretan

Ondorengo hiru idazleak, Goierrikoak izaten jarraitzen dute baina, kasu honetan, Manuel Larramendi andoaindarraren eragina hautematen da euren zenbait lanen hizkeran. Hala ere, eragin hau batez ere lexikoaren aldetik etorri zen, eta, morfologian, aditz-morfologiaren aldetik (Iztuetak adibidez, Beterriko *zuen* darabil 1847ko lanean, baina Goierriko *zeban*, aldiz, 1824koan). Hala ere, nire ustez Larramendiren eragina ez da hain erabakigarria izenordain neutroak edo indartuak hautatzerakoan.

Ondoko azpiataletan, armiarmako testuez eta honako lanez baliatu naiz: Ezeizabarrena (1990), Urgell (1996) eta Idiakez *et alii* (1998).

#### 3.3.1. Joxe Felix Amundarain-en *Sermoi-sorta* (1824)

Idazle hau Zegaman jaio eta Mutiloako bikario izan zen. Bi lan aipagarri idatzi zituen: *Jaquin bide Iritaratua* (1820) lan tekniko-juridiko itzulia, eta bestetik, *sermoi mordo*a (1824). Guk sermoiei helduko diegu.



Amundarainek idatzi zuen sermoi-sortan, 1. pertsona singularrean *ene* forma desagertu da eta *nere* testuinguru guztietara hedatu da. Hona hemen, bi adibide:

- (32) a. *ya aimesterequin nere viotzari bete zaizca deseo guciac* (190. orr., 5)  
b. *Edolaric nai nuque nere deseoz Aingeru baten alaidea* (199. orr., 2)

Beraz, LA legearen egoerak aurrera egin du. Bigarren pertsona singularrean bai *zure* eta baita *zere* (< *zeure*) mantentzen dira. LA legeari dagokionez, nahiko ondo mantentzen dela ikus dezakegu, adibide honek erakustean duen moduan:

- (33) *eta moguituco cerade naita ez damu, eta sentimentu andia, eta eguiazcoa cere viotzean artcera, pensatuaz, zure pecatu ichusi, mortal, ugariac era artan ifini erazo dutela.* (197. orr., 16-17)

Adibide honetan, bi agerpen ikus ditzakegu eta, bietan, LA legea betetzen da. Hala ere, i. > n. norabidean zenbait haustura topatu ditut. Gainera, urraketa hauek ez dira OA-en gertatzen. Hona hemen zenbait adibide:

- (34) a. *Zurequin naiz oraiñ, Ama dolorosa, baña eztaquit [zure pena, neque, naigabe doloretan zeñequin berdinduco zaitudan.]* (194. orr., 1)  
b. *busti legorrai, eta aldapa ñeco soai barcatu gabe, contiño zure alegiñac empeñatu dituzu, cere Ardien prochuan: Ego sum Pastor bonus: eta azquenic eman dezu cere vicia, Ardiac salvatceagatic.* (207. orr., 16)

Hirugarren pertsona singularra dela eta, Amundarainek ez ohi du *aren* erabili. Normalean, n. > i. egiten duela ikus daiteke (ikus (35b, c)). Hala ere, LA legearen jokamolde zaharra zenbait esapidetan gordetzen du, (35a)-n ikusten den bezala.

- (35) a. *Preso arceco demporan etzuan beste quejaric erakutsi, baicic lapur bati becela juan cirala amorraturic aren contra* (209. orr., 13)  
b. *Cere esquergaiztoz milla, ta milla aldiz aserratu dezula bere Aita Eternoa pecatu mortal, izugarriaquin, eta ugariaquin, ...* (197. orr., 4)  
c. *..., eta onetaraco valiatu bearra degula bere graciaz, ...* (229. orr., 33)

Pertsona-izenordain pluralei heltzeko asmoz, 1. pertsonan Amundarainek *gure* ia soilik erabiltzen du eta *guere* indartua, aldiz, 6 aldiz soilik agertzen da, beti ere dagokion testuinguruan.

- (36) a. *...; eta eraman dezagula beti guerequin gueron consolagarri, amparagarri; etagueron animen Etsajacajenatceco.* (217. orr., 21)  
b. *..., eta guerequin iduqui dezagun Gurutce santua bera, ...* (218. orr., 1)  
c. *..., gueron prochuraco nai digu eracutsi arrotasuna gueregandican*

*ajenatu, eta humiltasuna estimatcen, maitatzen; gueroztic beraren ontasunac, eta guganaco amodio paregabeac alchatu gaitzan:* (240. orr., 1)

Bigarren pertsona pluralean *zuen* eta baita orain arte gure lanean azaldu ez den *zeon* (< *zeuen*) ere agertzen da. LA legearen banaketa dela eta, legea nahiko ondo mantentzen dela ikus dezakegu. Hala ere, urraketa bakarra topatu dut n. > i. norabidean:

(37) *bada contuz veguiratcea asco dezute, cargu eguiteco, **ceon** culpac diralarío ni onetara naizala zuen amodioz,* (198. orr., 36)

Bukatzeko, 3. pertsona pluralari dagokionez, *aien* erabiltzen du neutrorako; indarturako, berriz, *eren* eta *beren* erabiltzen ditu. LA legearen banaketaren inguruan, ez dut hausturatik topatu eta neutroak bere horretan mantentzen dira, adibide honetan ikus dezakegun bezala:

(38) a. *eta itzali ciran **ayen** colera vicien sugarrac.* (211. orr., 9)

b. *andican badatoz echera, jarten dirade **eren** cicelu, edo aulquietan, pipea artu, chistua bota, eta murmuratu, bitu dituztenac banatu beste eguitecoric ez dute;* (252. orr., 24)

c. *...; bana Espiritu Santuac instante batean arguitu cizten **beren** cidimentuac, etainstante batean Maisu eguin ciraden.* (221. orr., 12)

Hau dela eta, Amundarainen lanean bitxikeria esanguratsu bat gertatzen da. Izan ere, 3. pertsona singularrean legea hausten dela ikus dezakegu, pluralean LA legea mantentzen den bitartean. Horregatik, Amundarainek pluralean singularrean baino zaharkitzaileago jokatzeko joera erakusten du.

### 3.3.2. Juan Ignacio Iztueta

Juan Ignacio Iztueta Lardizabalen modura, Zaldibian jaio zen eta bere garaiko idazleen artean apaiza ez zen bakarra zen. Besteak beste, Iztuetak 2 lan idatzi zituen: *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1824) eta *Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia* (1847). Villasanteren arabera (1961/1979: 255), lehenengoan Larramendiri neurri handiagoan jarraitzen dio bigarreanean baino. Nik biak hartu ditut aintzat.

#### 3.3.2.1. *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1824)

Iztuetaren lehen lan honetan, 1. pertsona singularrean *nere* soilik erabiltzen duela ikus dezakegu. Beraz, *nere* aldaeraren orokorpena gauzatu dela esan dezakegu, bai neutro, eta baita indartuetan ere. Ezaugarri honetan, Amundarain eta Iztuetak berritzaile

gisa jokutzen dutela iruditzen zait. Izan ere, *nere* aldaeraren orokorpena gerora gipuzkeraz eta goi-nafarreraz gertatu den fenomeno da.

(39) a. *Nere gazte denboran, Gipuzkoako plaza beakurtsuetan debekatua oi zan, ...* (62. orr., 24)

b. *..., baña asko aldiz aditu izan dietet nere aurrekoai, ...* (111. orr., 17)

2. pertsona singularrari dagokionez, OA-en (1713) lanean bezala Zaldibiako idazleak neutroa adierazteko *zure* erabiltzen du, baina indartua adierazteko, berriz, *zeure*. Oro har, LA legearen banaketa ondo mantentzen da, ondoko adibideetan ikus dezakegun bezala:

(40) a. *Esan ta egin, irureun Erromatarren kontra irten ziran zure irureun seme, iskillia edo armaz aiek bezain ongi janziak egon gabearren.* (207. orr., 4)

b. *Ama oneskia, mundu osoa arkitzen da ongi ezagaturik, zeñ irazekia ta sutua dan, zuk, zeure zorioneko etorkiarekin, jaioterriko biztanle doatsuetara dezun amodiozko naitasun bero, bizi, gartsua.* (13. orr., 5)

Hala ere, legea i. > n. norabidean hausten den zenbait adibide ere topatu ditut:

(41) a. *ta arras urraturik uxatu izan dituzu arin aski zure etxapera etorri zaizkitzun era guzietan.* (206. orr., 15)

b. *Igaro diraden denbora guzietan, beti eman izan dezu aditzera, biotzetik txit anitz maite dituzuna zure ume gogaberatiak.* (13. orr., 8)

3. pertsona singularra dela eta, Iztuetaren lanean neutroetan *aren* forma eta indartuetan, berriz, *bere* agertzen da. LA legearen banaketari dagokionez, beti betetzen dela iruditzen zait, ez baitut kontra-adiberik topatu, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala:

(42) a. *Orduan aurrendariak agindu bear die serbitzalleai, dijoatzela azkendariagana, eta esateko aren partetik, autatu ditzala bien eskuetarako berak naien dituen etxeandre oniritzi bi.* (74. orr., 19)

b. *Aditu det Ondarribiako alkate jaunak eragotzi diola bere erriko danboliñari, soñu arrotz iraingarriajotzea.* (62. orr., 29)

Pertsona izenordain pluralekin hasteko asmoz, 1. pertsonan neutroa adierazteko *gure* forma darabil. Indartuetan, berriz, *geren* forma. LA legearen banaketari dagokionez, nahiko ondo betetzen dela ikus dezakegu. Hona hemen bi adibide:

(43) a. *Baña gure anaia maitagarri lenago izendatu dituran oriek, ...* (18. orr., 19)

- b. *Eta guk, aiñ ardura gabeak, eta **geren** buruakin ondorengo guzien kaltarkitsuak izanbear degu,...* (66. orr. 12)

Hala ere, zenbait urraketa i. > n. norabidean gertatzen direla topatu dut, ondoko adibideetan ikus daitekeen moduan:

- (44) a. ***Gure** seme kanpoetan genduena bart etorri zaiku etxera, txit galant osasunarekin, eta guztiz jakinduria aundiakikoa.* (41. orr., 7)
- b. *..., ez da zer ajolarik artu batere, gizonik jakintsuenak **gure** alde ditugunean.* (18. orr., 32)

2. pertsona pluralean bai neutro eta bai indartua adierazteko *zuen* forma orokortu dela ikus daiteke. Hona hemen bi adibide:

- (45) a. *Ez dek ez **zuen** zañetan arkitzen, euskaldunen arrazako odolaren piskarik ere.* (85. orr., 29)
- b. *Irudikatu bear dezute Vicente Danbolin, **zuen** maisu gogoangarria, ...* (67. orr., 38)

Bukatzeko, 3. pertsona pluralean neutroa adierazteko *aien* forma erabiltzen du eta indartuan, aldiz, *beren*. Ez dugu testu guztian zehar *euren* formaren adibiderik aurkitzen. LA legearen banaketari dagokionez, 3. pertsonan ondo betetzeko joera dagoela hauteman dut. Hona hemen, zenbait adibide:

- (46) a. *orain dalarik 44 urte, baña asko aldiz aditu izan diotet nere aurrekoai, txit sarritan dantzatu oi zutela txipiritona **aien** denborako dantzariak, ...* (111. orr., 18)
- b. *Adieratzo nizunean nik **aien** borondatea, ...* (189. orr., 10)
- c. *..., ez **beren** biotz biguñetan atsekabe gutxi zutelako egun banaka batzuez aurretik izandu zituzten kalte izugarriaz,...* (15. orr., 25)
- d. *Guziak jostaketa oni egokidatzen zaiozkanak, eta mendietan, lenago, abelgorri oei **beren** zaina sarritan jo oi ziozkatena.* (24. orr., 21)

### 3.3.2.2. Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia (1847)

Iztuetaren lan honetan, 1824ko lanean bezala, 1. pertsona singularrari dagokionez, *nere* pertsona-izenordaina soilik agertzen da. Beraz, *nere*-ren orokorpena gertatu dela ikus dezakegu.

2. pertsona singularrean *zure* forma neutroa bi aldiz soilik topatu dut. Iztuetaren *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1824) lanean, aldiz, *zure*

formaren presentzia maizago ageri da. Hona hemen, Iztuetaren (1847)-ko lanean agertzen diren bi adibideak:

- (47) *emen gaude, **zureak** gera, atoz lenbait len laztantzera aspaldiko partez, eta gorde gaitzatzu ordu onean, **zure** kolko zabal mardul gozo indartsuan sekula betiko.* (10. orr., 20-21)

Hala ere, ez dut topatu *zeure* pertsona-izenordain indartuaren formarik. Beraz, Iztuetaren bigarren lan ospetsu honetan, 2. pertsona singularraren presentzia oso urria dela hautematen dugu. Honekin batera, esan beharra dago (47a) perpausean LA legea betetzen den bitartean n. izanik, (47b)-n, berriz, legea i. > n. norabidean urratzen dela. Beraz, Iparraldean ohikoa den bezala, forma neutroen orokorpena testuinguru guztietara hedatzen ari dela ikus dezakegu.

3. pertsona singularrean, espero dugun bezala bai *aren* eta baita, *bere* ditugu. LA legearen banaketari dagokionez, oro har, legea betetzen dela ikus dezakegu.

- (48) a. *eta Garibay jakintsuak ere esaten dabela, ezen, **aren** denporan ibai onetan urrea bildu eta landu oi zutela Baionatarrak.* (81. orr., 31)
- b. *Tubalen jatorri txau garbiak, España guztia osotoro. Tubalen etorreran ez ezik gerozko aldi bitan ere, aitzarte oei zor die Españako Erresuma andiak **bere** izate guztia.* (7. orr., 20)

Genitibozko pertsona-izenordain pluralei dagokienez, 1. pertsonan Iztuetak *Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia* (1847)-ko lanean *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia* (1824)-ko lanean bezala *gure* erabiltzen du neutro gisa eta *geren*, berriz, indartutzat hartzen du. LA legearen banaketa dela eta, nahiko ondo betetzen da.

- (49) a. ***gure** Ama zintzo Gipuzkoak bere gordeleku zuzenean badauzka argibide sinistgarrizkoak, ...* (52. orr., 24)
- b. *..., zeñetan dauden otallatuak Aballa, eta Lanzak, **gure** asaba maitagarriak irabazi izan zituzten batalla andi anitzen oroitpengarri.* (44. orr., 34)
- c. *..., **geren** egun laburretan ere ikusi izan degu argiro, garau maitagarri onek aberatstasun andiak eman izan diozkala Gipuzkoari.* (101. orr., 22)
- d. *...; eta uste oso betean arkitzen gera, entzungo dizkigula gogoz ta donarioz **geren** esakari bidezkoak.* (276. orr., 2)

LA legea, oro har, betetzen den arren, 1824ko lanean bezala, i. > n. norabidean urraketa bat topatu dut. Hona hemen horren erakusle den adibidea:

(50) ..., **gure** Egilleak egarria illtzeko ain eroso eta oparo eman izan zigun edari garbi doarikako maitagarri au,... (59. orr., 24)

2. pertsona pluralean agerpen bakarra topatu dut lan osoan zehar eta agerpen hori *zuen* da. Bertan legea i. > n. norabidean hausten da. Hona hemen topatu dudana adibidea:

(51) *Euskarazko garbiak, jakin dezazuten **zuen** atsegiñerako, ezen, itzkuntz jakinti aberats onek ez dabela auzora joan bearrik soñeko zirzillen eske, ...* (135. orr., 26)

Bukatzeko, 3. pertsona pluralari dagokionez, *beren* aldaera nagusitzen da baina, 1824ko lanean ez bezala, 3 kasutan *euren* aldaera aurkitzen dugu. Hona hemen, *euren* formaren 3 kasuak:

- (52) a. *Armeniatik etorri bezin prest mendi ondoetan txabolatxoak egiñik, jarri izan ziran beretan gure asaba maitagarriak, **euren** bizi modu berriari jarraitzen, guztiz naitasun andian elkar maitatzen zutela.* (6. orr., 34)
- b. *Esan ta egin; urte asko baino len ikusi izan ziran egiztatuak **euren** asmo zuzen bide onekoak.* (7.orr., 8)
- c. *..., Errezilko zelaiean bezin aixa menperatuko zituztela Erromatarrak **euren** Errian ere.* (183. orr., 24)

LA legearen banaketaren inguruan, 3. pertsonan, oro har, ondo betetzen dela hauteman dut. Hala ere, Iztuetaren (1847)-ko lanean ez dut 3. pertsonan forma neutrorik topatu. Forma indartuetan lehen esan bezala, 3 kasutan *euren* aldaera agertzen da baina bestela, nagusiki *beren* forma erabiltzen du.

- (53) a. *Zaldun gazte jakinti aberats ondo bizi diran aetakoak **beren** maizter prestu, eta erritar ondraduai bizimodurako on dituzten gauza balioso asko argitaratzeko.* (32. orr., 19)
- b. *Gizon argi gauza izkutukoen barri jakin naieko zenbait, jatxi izan dira inoiz lurruspe oetara, eun ta geiago oñeko bidean, **beren** biziak gordetzeko gogora al dakizkioten prestamen guztiak arturik,...* (55. orr., 23)

### 3.3.3. Francisco Ignacio de Lardizabalen *Testamendu Zarreco eta Berrico Condaira* (1855)

Zaldibiakoa zen, eta bi lan nagusi idatzi zituen: *Testamendu Zarreco eta Berrico Condaira* (1855) eta *Gramática Vascongada* (1856). Lehenerako, Larregi lapurtarraren lana izan zuen iturri, eta Ubillosen eragina ere jaso zuen. Ni *Testamentu Berrian* oinarritu naiz analisirako.

Lardizabalen lan honetan, 1. pertsona singularrari dagokionez, *ene* forma zaharra aurkitzen dugu. *OEH*-n, XVIII. mendetik aurrera *ene* pertsona izenordain zaharra bizkaierazko testuetan eta are gehiago gipuzkerazko testuetan gutxitzen dela esaten den arren, Lardizabalen XIX. mendeko lan honetan *ene* forma bokatioetan eta egitura fosilduetan aurkitzen dugu. Hona hemen, zenbait adibide:

- (54) a. *Ai ene semea! ama espatsuak ikusi orduko esan zion:* (13. orr., 14, 15)  
b. *Ai, ene emakumea! Baziñieki nork esan dizun «edaten indazu», zuk zerorrek menturaz eskatuko ziñioke, eta ur bizia emango lizuke.* (18. orr., 6. 11)

OA (1713)-rekin erkatuz gero, Lardizabalengan ezaugarri zahar baten presentzia ikusten dugu. Izan ere, OA-en (1713)-ko lanean jadanik *ene* desagertu da eta, *OEH*-n esaten den bezala, XVIII. mendetik aurrera gipuzkerazko testuetan *ene* soilik bokatioetara mugatuz agertzen da. Beraz, Lardizabalek XIX. mendean *ene* forma erabiliz, ezaugarri zahar baten aldekoa dela ikus daiteke.

Honekin batera, Lardizabalengan *neure* forma *ner*e bihurtzen da, eta gainera testuinguru guztietara zabaltzen da. OA-en, aldiz, kontrakoa gertatzen da. Izan ere, ordiziarrak *ner*e forma darabil neutroetan eta indartuetan, berriz, *neure*. Hona hemen, Lardizabalengan *ner*e-ren orokorpena gertatu dela erakusten diguten bi adibide:

- (55) a. *...: Nere animak Jauna altxatzen du, ...* (7. orr., 16)  
b. *Nondik datorkit nere Jainkoaren amak ikusteko zorion au?* (7. orr., 12)

2. pertsona singularra dela eta, *zure* eta *zere* (< *zeure*) mantentzen dira. OA-n indartuan *zeure* dugun arren, Lardizabalengan LA legearen banaketa nahiko ondo mantentzen da. Hala ere, Lardizabalen kasuan, zenbait perpausetan legea urratzen dela hauteman dut i. > n. norabidean. Ondoko adibideetan legearen urraketa ikus dezakegu:

- (56) a. *Zure lagun urkoa maite izango dezu eta etsaia gorrotatuko dezu;* (25. orr., 2, 3)  
b. *Edo nola zure anaiari esaten diozu:* (27. orr., 2, 15)  
c. *Zure anaiaren emazte ori ezin dezakezu zeretzat iduki.* (20. orr., 18)

(56c)-ren kasuan, bai *zure* neutroa eta bai *zeretzat* indartua ditugu. Lehenengo kasuan, legea i. > n. norabidean urratzen den bitartean, bigarrenengan betetzen da.

3. pertsona singularrean, Lardizabalek espero ditugun *aren* eta *bere* formak erabiltzen ditu. LA legearen banaketari dagokionez, legea betetzen da, ondoko adibideetan ikus dezakegun bezala:

(57) a. *Eginkizun onetarako San Juan baño erazkoagorik arkitzea, erraz etzan. (...)*  
*Jainkoak **aren** kontura ipiñitako lanbide andia, denbora zanean egiteko.*

(14. orr., 1, 11)

b. *..., bere ikasleak arrantzara, oi bezala, joan ziran batean, Jesus ere erregualdia eginda, Genesaretoko itsas ondoan arkitzen zan, **aren** billan zebillen jendeandia inguruan zuela.*

(29. orr., 4, 17)

c. *baña gizona **bere** Egillearen contra bereala jaiki zan, ...*

(5. orr., 1, 4)

d. *Gizon argal ez-jakin batzuek Jesusek **bere** ordekotzat aututzen ditu mundu guzia **bere** legera ekartzeko, ...*

(36.orr., 1, 12)

Hala ere, zenbait kasutan legea n. > i. norabidean urratzen hasten dela ikus dezakegu. Hona hemen, honen erakusle diren bi adibide:

(58) a. *Zakarias, ez ikaratu; bada zure erreguak adituak dira, eta emazte Isabelek emango dizu seme bat, Juan deituko diozuna. Atsegin artuko dezu, eta **bere** jaiotzan asko poztuko dira, zeren Jaunaren aurrean andia izango dan.*

(6. orr., 2, 15)

b. *Baña **bere** leialtasuna zenbaterañoakoa zan, ikusi nai izan zuen.<sup>7</sup>*

(7. orr., 2, 12)

(58)-ko perpaus hauetan, LA legea betetzeko *aren* esperoko genukeen. Izan ere, (58a) perpausuan *bere* pertsona izenordain indartuak *seme*-ri egiten dio erreferentzia eta *dira* aditzak, aldiz, *haiek* pertsona-izenordainari.

(58b) perpausak ere antzera jokatzen du, hau da, *bere*-k *Adani* erreferentzia egiten dio eta *zan* aditzak, ordea, *leialtasuna*-ri.

1. pertsona pluralari dagokionez, testu guztian zehar soilik *gure* forma erabiltzen duela topatu dut. Beraz, Otxoa Arinen (1713) kasuan 1. pertsona pluralean gertatzen den bezalako gertaera bitxirik ez da hautematen. Lardizabalengan *gure*-ren orokorpena gertatu baita.

(59) a. *Jesu Kristo **gure** Jaunak askotan esan izan zuen ilda irugarren egunean biztuko zala.*

(109. orr., 3)

b. ***Gure** egunoroko ogia gaur iguzu; **gure** zorrak barkatu zazkiguzu, **guk** **gure** zordunai barkatzen dieztegun bezala;*

(27. orr., 2., 7-8)

2. pertsona pluralean *zuen* forma neutroa testuinguru orotara orokortu dela, adibide hauetan ikus dezakegu:

---

<sup>7</sup> (58b) perpausa Lardizabalen *Testamentu Zarreco Kondaira edo Historiatik* (1855)-tik hartua da.



- (60) a. *bada, onela egiten badezute, saririk Zeruetako **zuen** Aitagandik artuko ez dezute.* (25 orr., 2, 20)
- b. *On osoak edo perfektoak izan zaitezte bada, Zeruko **zuen** Aita dan bezala.* (25. orr., 2, 12)
- c. *Baña **zuen** Aita Zerukoak badaki zuek gauza oien bear zeratela. Jainkoaren Erreinua eta zuzentasuna lenengo billa itzatzute, eta hura guzia emango zatzute.* (27. orr., 2, 7)

Bukatzeko, 3. pertsona pluralean Lardizabalek *aien* forma neutroa darabil eta indartuetan, aldiz, *beren*. LA legeari dagokionez, oro har, legea betetzeko joera hautematen da.

- (61) a. *eta ikusi zutenean Pedro zala, **aien** biotzak zer poza eta atsegiña artu zuten ezin esan diteke.* (147 orr., 8)
- b. *aiek **beren** egitekotik itzuli ziran, eta **beren** lanaren berriak Jesusi eman ziozkaten.* (56. orr., 9, 13)

#### 4. Ondorioak

Lanari amaiera emateko, ondorioei helduko diegu. Horretarako, lehenik lanean zehar aztertutako 6 obren datuak 5. taulan laburbiltzen saiatuko naiz, OA (1713)-tik Lardizabal (1855)-era bitartean hurrenkera kronologikoari jarraituko diodalarik. LA legearen inguruan ateratako datuak, hau da, n. eta i. darabilten genitiboeko pertsona-izenordainen formak aipatuz, eta legea betetzeko joera dagoen ala urraketen kasuan zein norabideetan gertatzen diren aipatuko dut era laburrean. Ondoren, taula agertu ostean, era sakonagoan ondorioak ematen saiatuko naiz.

	Otxoa Arin (1713)	Zegamako doktrina (1741)	Amundarain (1824)	Iztueta (1824) eta (1847)	Lardizabal (1855)
1.p. sg.	n.= <i>nere</i> ; i.= <i>neure</i> Hausturak n. > i. norabidean	i.= <i>neure</i> LA legea ondo betetzen da baina kasuren batean n. > i. norabidean urratzen da	<i>nere</i> orokortu da	<i>nere</i> orokortu da	<i>ene</i> agertzen da <i>nere</i> orokortu da, bokatibozko fosiletan izan ezik
2.p. sg.	n. = <i>zure</i> i.= <i>zeure</i> Hausturak n. > i. norabidean baina bi haustura i. > n. norabidean	n.= <i>zure</i> i. = <i>zeure</i> Hausturak n. > i. norabidean	n. = <i>zure</i> i. = <i>zere</i> LA lege ondo betetzen baina urraketa- ren bat n. > i. norabidean	n. = <i>zure</i> i. = <i>zeure</i> Urraketaren bat edo beste, i. > n. norabidean	n. = <i>zure</i> i. = <i>zere</i> Oro har, legea mantentzen da baina urraketa- ren bat i. > n. norabidean
3.p. sg.	n. = <i>aren</i> i. = <i>bere</i> LA legea beti betetzen da	n. = <i>aren</i> i. = <i>bere</i> LA legea betetzen da	i = <i>bere</i> LA legea n. > i. norabidean urratzeko joera dago ( <i>aren</i> esapideetan bakarrik)	n. = <i>aren</i> i. = <i>bere</i> LA legea betetzen da	n. = <i>aren</i> i.= <i>bere</i> Legea betetzen da
1.p. pl.	n. = <i>gure</i> 3 bider baina nagusiki <i>gere</i> / <i>geure</i> i. = <i>geren</i> / <i>geuren</i> Hausturak i. > n. norabidean	n. = <i>gure</i> i. = <i>geure</i> / <i>geuren</i> Hausturak n. > i. norabidean	<i>Gure</i> orokortu da <i>Gere</i> 6 bider agertzen da LA legea betetzen da	n. = <i>gure</i> i. = <i>geren</i> Urraketaren bat edo beste, i. > n. norabidean	<i>gure</i> -ren orokorpena gertatu da
2.p. pl.			n. = <i>zuen</i> i. = <i>zeon</i> Oro har, legea ondo betetzen da baina urraketaren bat n. > i. norabidean	<i>Zuen</i> forma orokortu da eta 1847-ko lanean urraketa bat i.> n. norabidean	<i>Zuen</i> forma orokortu da
3.p. pl.	i. = <i>euren</i> LA legea beti betetzen da	i.= <i>euren</i> LA legea beti betetzen da	n. = <i>aien</i> i.= <i>eren</i> / <i>beren</i> . LA legea betetzen da	n. = <i>aien</i> i.= <i>beren</i> , <i>euren</i> (3 bider, 1847-n) LA legea betetzen da	n. = <i>aien</i> i. = <i>beren</i> Legea betetzen da

5. taula. OA (1713)-tik Lardizabalen (1855)-era bitarteko datuen laburpena

Ondorioen azalpen xeheago bati ekiteko asmoz, 5. taulako datuei erreparatuz Gipuzkoako Goierri eskualdean XVIII. mendetik XIX. mendera bitartean LA legea nahiko ondo betetzen dela ikus dezakegu, bereziki pertsona-izenordain jakin batzuetan. XVIII. mende hasieran OA (1713)-rekin, 3. pertsona singular eta pluralean LA legea beti betetzen dela hautematen da. Zegamako Doktrinan (1741) gauza bera gertatzen da, nahiz eta 3. pertsona singularrean kasuren batean legea  $n. > i$ , norabidean urratu. XIX. mendean, aldiz, 3. pertsona singularrean joera aldaketa gauzatzen da. Izan ere, Amundarainek (1824)-ko sermoi-sortako pasarte batzuetan LA legea sistematikoki  $n. > i$ . norabidean hausten du. Hala ere, zenbait adibidetan (adib. *aren contra*)  $n$ . mantentzen da, eta pluralean ere bai. Bi testuinguru hauek, beraz, zaharkitzaileak dira. Ondorengo idazleek, hau da, Iztuetak (1824)/(1847) eta Lardizabalek (1855) ez dute 3. pertsonetan legea hausten.

Pertsona-izenordainen formari dagokionez, 3. pertsonan espero diren *aren / bere* aldaerak agertzen dira eta pluralean, berriz, XVIII. mendean *euren* forma indartua maizago agertzen da XIX. mendean baino. Amundarain (1824)-ko lanean *eren* aldaera agertzen da, eta Iztueta (1824) / (1847) eta Lardizabal (1855) lanetan, berriz, *beren*. Beraz, hauek gerora XIX. mendean hedatu diren formak direla ikus dezakegu.

1. pertsonari dagokionez, singularrean *ene* forma zaharra Lardizabalengan soilik topatzen da. Beraz, Lardizabalek XIX. mendean ezaugarri arkaiko bat berreskuratu duela esan dezakegu. Izan ere, mende bereko beste bi idazleek *nere* modu orokorrean baliatzen dute. Azken ezaugarri hau nahiko berria dela ikus dezakegu. Izan ere, *nere*-ren orokorpena gerora erdialdean eta goi-nafarreraz eman den fenomeno da. XVIII. mendean, aldiz, *neure* forma indartua topatzen dugu. Legeari dagokionez, oro har, legea ondo betetzen da baina  $n. > i$ . norabidean urraketaren bat edo beste topatzen dugu.

Pluralean, aldiz, bereizgarritasunik handiena OA (1713)-n ikus dezakegu. Bertan  $n$  gabeko formak neutroak dira eta  $n$ -dunak, berriz, indartuak. XIX. mendean, berriz, Iparraldean bezala *gure*-ren orokorpena gauzatu da. LA legeari dagokionez, pluralean urraketak bi norabideetan gauzatzen dira, hau da,  $n. > i$ . eta  $i. > n$ . norabideetan.

Bukatzeko, garai honetako Gipuzkoako idazkietan 2. pertsonaren izenordainaren presentzia nahiko urria da. Horregatik, pluralean XVIII. mendeko bi testuetan ez dago lekukotasunik eta singularrean, berriz, espero diren *zure* eta *zeure* ditugu. Hausturei dagokienez, sg.ean gehienak  $n. > i$ . norabidean gertatzen dira.

XIX. mendean, aldiz, *zure* mantentzen den arren, Amundarainek (1824) eta Lardizabalek (1855) *zere* aldaera berritzailea indartu gisa erabiltzen dute. Legearen

hausturei dagokienez, hausturak XVIII. mendearen kontrako norabidean gertatzen dira, hau da, i. > n. norabidean. Amaitzeko, pluralean *zuen* forma indartuaren orokorpena gauzatu da, baina Amundarainek (1824) *zeon* forma indartua baliatzen du.

## Bibliografia

- Euskaltzaindia. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. In: [http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu)
- Ezeizabarrena, Mari Jose (arg.). 1990. *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Idiakez, Antton & Aranburu, Pello J. & Bidegain, Marian & Rezola, Iñaki (arg.). 1998. *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama 1755 - Mutiloa 1825), Goierriko euskal idazle ezezaguna (= VII. Gerriko ikerlan saria)*. Lizarra: Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea.
- Martínez Areta, Mikel. 2014-15. *Euskal Testuak II, 2014/2015-eko argibideak*. Argitaratu gabeko eskolako materiala.
- 2015. “Linschmann-Aresti legea Lazarragaren testuan”. In: Fernández, Beatriz & Salaburu, Pello (arg.), *Ibon Sarasola, gorazarre*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 457-472.
- Mitxelena, Koldo. 1964/1990. *Textos arcaicos vascos [= TAV]*. Madril (= ASJUren Gehigarriak 11). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia/Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ondarra, Frantzisko (arg.). 1980. “Zegamako Doctrina Christiana (1741)”. *ASJU* 18 (2), 3-62.
- Sarasola, Ibon. 1980. “Nire/neure, zure/zeure literatur tradizioan”. *Euskera* 25, 431-446.
- Urgell, Blanca (arg.). 1996. *Testamentu Berriko Kondaira*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Villasante, Luis. 1961/1979. *Historia de la literatura vasca* (2. arg.). Oñati: Arantzazu argitaletxea.